

ARO BERRIKO FILOSOFIAREN HISTORIA

Testu iruzkinak

La Gran Restauración (Novum Organum), Francis Bacon

- Sarrera:

Jarraian landuko dudana obra, *Novum Organum* delakoa, 1620. urtean idatzi zuen Francis Baconek, ondoren enpirismo filosofikoaren eta zientifikoaren aitatzat hartu denak.

Berpizkudearen garaian ekoitzi zen obra hau. Berpizkundera XV. eta XVII. mende bitartean garatu zen. Garai historiko horretan, humanismoarekin batera, zientzien garapena eman zen. Horren adierazle garbia da teozentrismotik heliozentrismorako saltoa, esaterako. Natur zientzien garapen honetan paper funtsezkoa bete zuen metodo zientifikoak (behaketa, esperimentazioa, hipotesiak...). Esan genezake garaiko zientziagileek errealitatea bere horretan ezagutzeko apustua egin nahi izan zutela. Beraz, testuinguru berritzaile horretan koka daitezke Bacon eta bere lana.

Baconek, obra honetan mahai gaineratzen duen proposamenaren eskutik, ezagutzaren kontzeptzio kontenplatibo tradizionalarekin amaitu nahi du. Izan ere, haren ustetan, metodo zientifiko apropos bat garatzeko ezin dugu Aristotelesen *Organum* obran jasotzen den silogistika oinarritzat hartu. Hori dela eta, autoreak zientzia egiteko metodo berri bat azaleratzen du, esperimentazio eta indukzioan oinarritzen dena.

Novum Organum obra sei atalez osatuta dago. Dena den, bi atalez mintzatuko naiz ondorengo lerroetan: hitzaurreaz eta bigarren zatiaz, aforismoez osatuta dagoena.

- Garapena:

Aurretik aipatu bezala, errealitatea edota gauzak bere horretan ezagutu ahal izateko, Baconentzat beharrezkoa da silogismo aristotelikotik aldentzea. Aristotelesen sistema logikoak honako eskema jarraitzen du: egiazat hartzen diren premisetatik abiatuta (axiomak), arrazoibide logiko baten bitartez, baieztapen batzuk ondorioztatzen dira. Horrela, sistema sendoa bat eraikitzen da, sistema axiomatiko gisa ezagutzen dena. Aldiz, autoreak zientzia egiteko forma horren kontra agertzen da, ordura arte erabiltzen zen metodo axiomatikoak dituen mugak azaleratuz.

Bere ustetan, *Idola* bezala izendatzen dituen aurreiritzi okerrak ditugu errealitatea ezagutzerako orduan, eta ezinbestekoa izango da hauekin amaitzea zientzia era egokian egin ahal izateko.

Lau *idola* mota bereizten ditu. Batetik, *Idola tribus* (tribuaren idoloa), giza espeziearekin lotutako aurreiritzia. Giza adimenak bere natura propioa gauzen naturarekin nahasten du eta, horrela, bigarren hau distortsionatzen du. Gizaki izateagatik berezko giza egiturarekin kontenplatu dugu errealitatea, finean. Bestalde, *Idola specus* (kobazuloko idoloa), norbanakoarekin lotzen duena. Gizakiok mundua gizaki bezala antzematen dugun bezala, norberak ere bere betaurreko propioak ditu errealitatea ikusteko. Gizabanako batetik bestera ematen den perspektiba aniztasunean hainbat faktorek dute eragina: norberaren natura, jasotako heziketak edota formazioak... Giza espiritua anitza da eta, beraz, modu ezberdinetan ikusten eta aztertzen dugu inguratzen gaituen hori. Hirugarrenik, *Idola fori* (foroko idoloa) aurkituko genuke. Aurreiritzi mota hau gizakien artean ematen diren bat-etortze edota kontsentsu linguistikoetatik sortzen da. Gizakiok gauzak izendatzen ditugu eta hitzek giza adimena bortizki eragin edo baldintzatzen du. Azkenik, *Idola teatre* (antzerkiaren idoloa) egongo litzateke, zeina eskola edo korrante filosofikoekin lotuta dagoen. Honekin batera, filosofiaz gain, zientzian onartutako hainbat printzipio eta axioma ere sartzen ditu aurreiritzi mota hauen barruan; izan ere, hauek tradizioa, sineskortasuna eta arduragabekeriaren ondorioz ezarri baitziren, Baconen esanetan.

Giza adimenak gauzetan berez dagoena baino ordena eta antzekotasun handiagoa dagoela aurreuposatzen du. Gainera, naturan antzekotasunak eta ezberdintasunak dituzten gauzak daude; gizakiak, ordea, existitzen ez diren paralelismo eta harremanak imajinatzen ditu haien artean.

Honekin batera, giza adimena kontzeptio jakin batekin asetzen denean, gainontzeko guztia harekin bat egitera eta hura sendotzera eramaten du. Eta lehen kontzeptio horrekin bat egiten ez duten instantzien indar eta kopurua handia izan arren, adimenak horiei garratzia kendu edota baztertzeko tendentzia dauka, oinarri edota printzipiotzat hartu den uste hori zalantzan jarri ez dadin.

Aurrekoa alde batera utzita, testuan zehar errepikatzen diren hainbat kontzeptu nabarmenduko nituzke. Hasteko, axioma kontzeptua, egiazat jotzen den premisa, printzipio gisa kontsideratzen dena. Hemendik abiatuta, arrazoiketa logiko baten bidez, zenbait baieztapen edo ondoriotara iristen gara. Bestalde, indukzioaren nozioa aurkituko genuke. Hau dedukzioaren aurkakoa den metodoa da. Bide logiko-deduktibo bat jarraitu ordez, esperientziaren eskutik ondorioztatzen da hipotesi bat. Hortaz gain, *idola* hitza, gorago aipatu bezala, autoreak aurreiritzi oker gisa ulertzen duena. Hainbat mota daude: *Idola tribus* (giza espeziearekin lotutakoa), *Idola specus* (norbanako bakoitzarekin lotutakoa), *Idola fori* (hitzeekin edo adostasun linguistikoekin loturikoa) eta, azkenik, *Idola teatre* (printzipio filosofiko zein zientifikoekin lotutakoa).

- Ondorioa:

Laburbilduz, Baconek obra honetan metodo axiomatiko edo deduktibo tradizionalaren kontra metodo berri bat jartzen du mahai gainean, metodo zientifiko esperimentalak, zeinaren oinarritzat indukzioa hartzen den.

Metodoari buruzko Diskurtsoa, René Descartes

- Sarrera:

René Descartes 1596. eta 1650. urte bitartean bizi izan zen pentsalari frantsesa izan zen.

Modernitatearen aitatzat hartu ohi da, bere pentsamendua Modernitatearen hasiera edo abiapuntu gisa kontsideratu izan baita. Descartesek filosofia egiteko abiapuntua aldatuko du, bereziki. Esan genezake jarduera filosofikoa, hein handi batean, objektuaren filosofia izatetik subjektuaren filosofia izatera pasako dela, metafisika egiteki epistemologia egitera.

Filosofo frantsesa korrante arrazionalistaren barruan sartu ohi da, arrazoiaren bidez egia ezagutzea baita bere obra filosofikoaren oinarria; areago, hau bere bizitzaren helburu edo eginkizuntzat hartzera iritsi zen.

Bere lan filosofiko nagusien artean, *Espirituaren zuzendaritzarako arauak* (1628), *Metodoari buruzko Diskurtsoa* (1637) eta 1641ean idatzitako *Meditazio metafisikoak* aurki ditzakegu.

Descartesek metodo berri bat proposatzen du, metodo deduktibo edo analitikoa, zeinaren xedea Egia den (honakoa sistema deduktibo gisa ulertu eta eraikita). Horretarako, zalantza metodikoa garatuko du: ordura arte egiazat jotako ideia edo sinesmen oro zalantzan jarriko du, benetako ideia argi eta bereziak aurkitzeko asmoz. Behin hauek ezagututa, bere sistemaren oinarritzat hartzen ditu, horien gainean beste guztia eraikiz.

Metodoari buruzko Diskurtsoa obra sei zatiz osaturik dago. Sarreran aditzera ematen den bezala, lehenengo atalean zientziei buruzko hainbat gogoeta biltzen dira; bigarrenean autoreak proposatzen duen metodoaren oinarriak jartzen ditu mahai gainean; hirugarren zatian metodo honetatik ondorioztatu dituen zenbait arau moral azaleratzen dira; laugarren atalean Jainkoaren eta giza arimaren existentzia frogatzeko saiakera egingo da, argudio ezberdinak baliatuz horretarako; bosgarrenean autoreak aztertu dituen fisikako arazoaren ordenarekin edota gizakiaren eta gainontzeko animalien arimaren arteko aldeekin lotutako hainbat puntu jasotzen dira; eta, azkenengo atalean, naturaren gaineko ikerketari dagokionez, bera heldu dena baino harantzago heltzeko jarraitu beharreko urratsak proposatzen dira. Dena den, nik lan honetan bigarren zein laugarren atalei erreparatuko diet soilik.

- Garapena:

Testuaren bigarren zatian, metodoaren arau edo oinarriak finkatzen dira. Zientzia sistema deduktibo sendo gisa irudikatzen du pentsalari frantsesak eta, hortaz, egiazkoa dela zalantzan jarri ezin den oinarri ziur baten gainean eraiki behar da. Zentzu horretan, logikaren arloan silogismoek gauza berriak ezagutzeko baino, aurretik ezagunak ditugun gauzak azaltzeko balio duela aditzera ematen du. Hori dela eta, Egia ezagutzea ahalbidetu diezagukeen metodoa proposatzen du.

Metodo kartesiarrak lau arau edo urrats ditu. Lehendabizi, izan ditzakegun aurreiritzi posible guztiak baztertu behar dira, soilik inolako zalantzarik onartzen ez duten ideia ebidenteeekin geratuz. Bigarrenik, edozein zailtasunen aurrean arazoa zatitu behar da, elementu txikienetara iritsiz. Hirugarren urratsa, norbere pentsamenduak ordenatzea; horrela, gai bakun eta ulerterrazetatik hasita, poliki-poliki, konposatuenen ezagutzara iritsi arte. Eta, azkenik, egindako arrazoiketa-bidearen gaineko berrikuspenak egin behar dira, ezer ahazten ez zaigula ziurtatzeko. Descartesen metodoan matematikaren edota geometriaren ereduak duten eragina nabarmena da.

Laugarren atalari helduz, Jainkoaren eta giza arimaren existentzia frogatzeko argudioak ematen dituela ikus dezakegu. Aurretik aipatu bezala, Descartesek zalantzarik txikiena sor diezaiokeen edozein ideia errefutatzeari ekiten dio, ea bere usteen sarean guztiz ziurra edo zalantza gabekoa den zerbait geratzen den ikusteko. Horrela, batetik, gure sinesmenek engaina gaitzaketela eta, bestetik, arrazonatzean huts egin dezakegula adierazten da. Honekin batera, esna gaudenean dauzkagun pentsamenduak lotan gaudela ere etor dakizkiguke. Beraz, hemendik zera ondorioztatzen du: norbere adimeneko ideiak ez direla ametsetako lilurak baino gehiago. Horrela, egiaztat jotzen zituen uste denak baztertzeko, dena faltsua dela pentsatzera iristeraino. Aldiz, ikerketa-jarduera hau aurrera eramaten ari den bitartean, ohartzen da pentsatzen ari dela eta pentsatzearen ekintza hori burutzen duen subjektuak, Niak, ezinbestean, zerbait izan behar duela, existitzen dela, alegia. Horrela iritsiko da hain ezaguna den baieztapenera: *cogito ergo sum* ("pentsatzen dut; beraz, banaiz"). Pentsatzeak berak intuitiboki erakusten du norberaren existentzia. Aldiz, honakoa ez da kausa-efektu kontu bat bere horretan; hau da, ez naiz existitzen pentsatzen dudalako, baizik eta pentsatzearen ekintzak "demostratzen" du nolabait nire existentzia.

Behin Niaren existentzia ideia argi eta bereizi gisa kontsideratuta, autorea honen nolakotasunean sakontzen saiatzen da. Zentzumenek engaina gaitzaketela ikusita, gerta liteke benetan ez egotea gorputz bati lotuta. Hori dela eta, Descartesek dualismo antropologikoa defendatuko du: Nia arima da, substantzia bat, gorputzarekiko erabat bestelakoa eta honekiko edota beste edozein izate materialekiko independentea dena; bere hitzetan, "gorputzik ez balego ere, arima bera baden horixe izango litzateke beti" (Descartes, 1637, 64). Nia (*res cogitans*) substantzia pentsalaria da beraz, pentsatzeko gaitasuna duen zerbait.

Horrela, pentsatzen duen substantzia hori abiapuntutzat hartuta, Jainkoaren existentzia frogatzeko argudioak emateari ekingo dio. Antselmo Canterburykoak erabilitako argudio ontologikoaren eragina ikus daiteke Descartesek abiatzen duen argumentazio-bidean.

Bere izatea guztiz perfektua ez dela onartzen du hasteko; izan ere, ezagutzea zalantza egitea baino perfektuagoa da. Bere inperfekzioaren onarpenak, era berean, ondorengo ideia

edo zalantza ekartzen dio gogora: nola da posible bera baino perfektuagoa den zerbaiti buruz pentsatu ahal izatea? Perfekzioaren ideia, hortaz, bera baino perfektuagoa den natura batetik ikasia izan beharko litzateke. Izan ere, ideia hau (izate perfektuago baten ideia) ezin da ezerezetik eta bere kabuz sortua izan. Hontaz gain, ezinezkoa da norberégandik sortzea, zeren eta perfektuagoa den hori perfekzio txikiagoko izate baten ondorio eta menpeko izatea onartezina da. Beraz, aukera bakarra dagoela baieztatzen du autoreak: Nia baino perfektuagoa den natura batek, hots, Jainkoak jarri behar izan du ideia hori norberarengan. Gainera, nireak ez diren perfekzio batzuen gaineko jakintza dudanez, niaz gain beste izaki bat existitu behar da, ni baino perfektuagoa dena eta ni haren menpekoa.

Hortaz gain, Descartesentzat menpekotasuna akats bat dela kontuan izanik, adierazten du Jainkoa ezin dela ez adimenezko naturaz eta natura korporalaz osatuta egon. Gainera, munduan guztiz perfektuak ez diren zenbait gorputz egonez gero, hauek Jainkoaren menpekoak lirateke; hau da, hura gabe ezin lirateke existitu.

Behin bigarren ideia argi eta bereizia ezagututa (Jainkoa, alegia), kanpoko errealitatearen gainean izan ditzakegun ideiak natura perfektua duen izate horretatik eskuratu ditugula defendatzen du filosofo frantsesak, eta Jainkoaren ontasuna eta perfekzioa direla eta, munduari lotutako nozio horiek egiazkoak izan behar dira.

Filosofoek arautzat honako baieztapena hartzen dute: ezer ez dago ulermenean aurretik sentimenean egon ez dena. Egia da sentimenean ez direla sekula egon ez Jainkoaren ez arimaren ideiak. Hala ere, sentimenek engaina gaitzakete. Ulermenak esku hartzen ez duen artean ez irudimenak ez sentimenek ezingo dute sekula ezer ziurtatu.

Gauzen existentziaren ziurtasun metafisikoari buruz erabat seguru ez egoteko honako arrazoi hau nahikoa da: lotan egotean ere irudikatu dezakegu beste gorputza bat daukagula, beste mundu batean bizi garela... Nola dakigu ametsetan datozkigun pentsamenduak besteak baino faltsuagoak direla? Ezin da honen gaineko zalantzarekin amaitu Jainkoaren existentzia onartzen ez dugun bitartean. Soilik behin guregan dagoen guztia Jainkoarendandik datorrela onartuta aurkitu ditzakegu argiak eta bereziak diren egia. Beraz, gure ideia eta nozioak, benetako gauzak direnez eta Jainkoarengandik datozenez, egia izan behar dira, argiak eta bereziak diren neurrian. Guregan dagoen sinismen-sistema osoa izate perfektu batengandik datorrela ez bagenuke onartuko, ezingo genuke ziurtatu egiazkoak izatearen perfekzioa duenik.

Horrenbestez, behin Jainkoa ideia ebidentea dela ondorioztatuta, hemendik kanpo munduaren ebidentziara iristen dela adieraz genezake.

Testuan jasotzen diren hainbat hitz klaberren artean, ondorengoak aurki daitezke, besteak beste: alde batetik, zalantza kontzeptua, abiapuntu metodiko kartesiarra dena. Iritzi zein usteetatik hasita, giza gaitasunak zein, orokorrean, inguratzen gaituen errealitatea bera zalantzan jartzean oinarritzen da, ebidenteak diren ideia edo printzipioak aurkitzeko xedez. Beste aldetik, ideia argi eta bereziak egongo lirateke, ziurrak, zalantzan jarri ezin diren elementuak direnak. Azkenik, Egia, sistema deduktibo sendo gisa ulertzen duen kontzeptua.

- Ondorioa:

Descarteseak, aipatu bezala, Egia aurkitzeko metodo analitikoa jartzen du mahai gainean, zeinaren abiapuntua zalantza metodikoa den; hots, egiaztat hartzen zituen ideiak zalantzan jartzen ditu, benetazkoak diren ideia argi eta bereizietara iristeko asmoz. Horrela, pentsatzen duen izate edo subjektuaren existentzia (Nia) izango da lehendabizi aurkituko duen ideia ziurra. Ondoren, hau oinarri gisa hartuta, Jainkoaren existentziara iritsiko da, zeinaren existentzia frogatzeko argudioak ematen dituen. Hau izango da argudio nagusia: Jainkoa hain da perfektua ezen ezin zaion existentziaren perfekzioa ukatu. Ondorioz, Jainkoaren ideiak, hau da, Jainkoarengan pentsatu ahal izateak haren existentzia suposatzen du. Bide honetatik, Jainkoa ahalguztiduna, ongia absolutua da; horrenbestez, honen existentziak ziurtatzen du ez dagoela engainatzen gaituen Jenio maltzurrik. Hori dela eta, mundua (eta honi buruz dauzkagun nozioak) ideia argi eta bereizia litzateke.

Giza ezagutzari buruzko ikerketa, David Hume

- Sarrera:

David Hume (1711-1776) filosofo eskoziarra izan zen, enpirismoaren (baitako) autore nausietako bat.

Giza naturari buruzko tratatua (1739) eta hurrengo orrietan landuko dudan obra, *Giza ezagutzari buruzko ikerketa* (1748), hartu daitezke bere funtsezko obra bezala.

Humek giza naturaren psikologia aztertzen duen gizakiaren zientzia naturalista bat sortzeko saiakera egin zuen. Bere pentsamenduari dagokionez, enpirista gisa, jaiotzetiko ideien existentzia ukatu eta giza ezagutza esperientziatik soilik eskuratzen dugula defendatzen du. Horrela, kanpo munduarekin dugun esperientziatik inpresioak jasotzen ditugu eta, era berean, inpresio hauek ideiak osatzen dituzte.

XII. Atala izango da aztergai bezala hartuko dudan pasartea, *Filosofia akademiko edo eszeptikoaz* deritzona. Hemen zenbait eszeptizismo mota ikertzen dira, hauen mailakatze bat eginez, probetxuzko eta ez-probetxuzko bezala sailkatzen duelarik. Honekin batera, bakoitzak egindako objekzio filosofikoak eta hauek sendotzeko eszeptikoek erabiltzen dituzten argudioak azaleratzen dira.

- Garapena:

XII. Atala hiru azpiataletan banatzen da. Lehen azpiatalari helduta, Humek zenbait galdera planteatzen ditu: zer da eszeptikoa izatea? Noraino eraman daitezke zalantza eta ziurgabetasunezko printzipioak? Hasteko, Descarteseak, beste autore batzuek bezala, baliatzen duen alde zuzeneko eszeptizismo mota dakar eskoziarrak gogora, zalantza

unibertsala, alegia. Zalantza kartesiarrak barneratuta ditugun iritzi zein printzipioak zalantzan jartzetik harantzago, gure gaitasunak ere jartzen ditu ezbaian. Descartesen metodo honen asmoa, beraz, zalantzagarririk ez diren printzipio batzuk identifikatu eta, arrazoiketa-bide deduktibo baten eskutik, baztertutako guztiaren egiazkotasuna ziurtatzea litzateke. Hume arabera, zalantza kartesiarraren bitartez ezingo ginatke sekula segurtasun eta uste osoko egoera batera iritsi. Izan ere, metodo horren funtsa guztia ezbaian ipintzea denez, zaila litzateke noizbait printzipio bat ziurtat jotzea eta, hori lortuko balitz ere, aintzat izanda gure ahalmenen egiazkotasuna zalantzan jarri dela, posible izango litzateke argumentazio-bide horretan aurrera egitea mesfidantza sortu diguten gaitasun horietaz baliatu gabe? Hala ere, honen aurrean, autoreak adierazten du, era moderatuago batean garatzen bada, eszeptizismo forma hau baliagarria dela. Zalantza puntu honen bitartez posible litzateke aurreiritzietatik askatzea. Hontaz gain, ebidenteak diren printzipioetatik abiatu eta ondorioak berrikustea egia iritsi eta gure determinazioetan benetako ziurtasun bat eskuratzeko metodo bakarra dela dio.

Ondoren, zientziaren eta ikerketaren *ondorengoa* den eszeptizismoa hartzen du ikerketa gai gisa. Badago erabat orokortua dagoen uste bat, zeinaren arabera gure hautematearen mende ez dagoen kanpo mundu bat existitzen den, gu existituko ez bagina ere hor jarraituko lukeena. Horrela, gure zentzuengandik eskuratutako irudiak kanpoko objektuak direla sinistu izan dugu. Dena den, Humek dio, honi buruzko hausnarketa xumeena burutuz, ohartuko garela kanpo objektuak hartzen ditugunak gogoaren baitako pertzepzioak besterik ez direla, horien irudikapenak. Baina, eszeptikoak haratago joango lirateke: demostratu al daiteke gogo-pertzepzioak kanpo objektuetatik sortuak izan direla eta ez gogoaren ekintza propietatik? Izan ere, gorputza eta gogoa bi substantzia elkarrekiko oso bestelakoak dira, eta zaila litzateke bata bestearengan horrelako ekintza gauzatu ahal izatea.

Aurrekoari jarraiki, ikertzaile modernoek objektuetan antzematen ditugun propietate edo kualitate sentigarriak (hedadura, koloreak...) gogoaren baitakoak direla eta ez, aldiz, objektuan daudenak onartzen dute. Bide horretatik, eszeptikoek defendatuko luketen lehen objektu filosofikoa *ondorengoa* litzateke: zentzuen ebidentziarekiko edo kanpo existentziaren aldeko iritziarekiko objektua. Honen arabera, kualitate sentigarriekin lotutako iritzi hori berezko instintuan oinarritzen bada, arrazoaren aurkakoa da, eta arrazoiaren oinarritzen bada, berezko instintuaren kontrakoa. Bigarren objektua haratago doa: kualitate sentigarriak gogoaren pertzepzioak besterik ez badira eta ez objektuan daudenak, materiari bere propietate guztiak kendu eta objektua bera suntsitua geratuko da, esplikagaitza den zerbait geratuko baita.

Hala ere, Hume *gehiegizko* eszeptizismoaren aurka agertzen da. Honela dio: galdetu eszeptiko bati zein den bere planteamenduaren helburua eta ez du jakingo zer erantzun. Izan ere, horrelako planteamenduek soilik arrazoaren eta ekintza ororen suntsiketa ekar dezakete, besterik ez. Aitzitik, "nahikoa da bizitzako lehenengo gertaera arruntena haren ezbai eta eskrupulu guztiak uxatzeko" (Hume, 1748, 186).

Bigarren atalean, Humek eszeptizismo mota horri buruz mintzatzen jarraitzen du. Eszeptiko horiek oinarrian hain arrunt eta arrazoizkoak iruditu dakizkiguen zenbait ideia, egiazki arrazoaren beraren aurka doazen ideiak direla defendatzen dutela dio. Hori dela eta,

korrante eszeptiko horren helburu nagusia arrazoiketa bidez arrazoia bera suntsitzea litzateke, autore eskoziarraren ustetan.

Hortaz gain, kapitulu honetako hirugarren zatian, baliagarria izan daitekeen eszeptizismo mantsoago edo filosofia akademiko bat ekartzen du enpiristak mahai gainera. Humen ustetan, gehienok norbere iritzietan dogmatikoak izateko joera daukagu, errealitatea alde batetik baino aztertzen ez dugularik. Hori dela eta, zalantza egitea lagungarria da norbere harrotasuna baretu eta ikerketa zein erabakietan egokiago jokatzeko.

Ondoren, XII. Atal honetan jasotako zenbait hitz klabe ekarriko ditut gogora. Batetik, *eszeptizismo* edo *eszeptiko* kontzeptuak behin eta berriz errepikatzen ditu autoreak, kapituluaren oinarritzko terminoak izanik. Humek *eszeptikoa* "iritzirik edo printzipiorik ez daukan gizakume" gisa definitzen du. Honekin batera, gorago aipatu bezala, eszeptizismoaren helburua arrazoiketaren bidez arrazoia bera suntsitzea litzateke. Bestalde, *pertzepzioak* izango genituzke, hautemateko gaitasunaren bidez eskuratzen diren gogoaren baitako hautemateak direnak. Hauek bi motatan bereiz daitezke: alde batetik, inpresioak daude, kanpo objektuek gugan utzitako nolabaiteko arrastoak direnak. Bestalde, behin horiek esperientziaren bitartez eskuratuta, inpresioen irudiak sortzen dira, ideiak, hain zuzen ere, beste pertzepzio mota. Beraz, inpresioak esperientziatik datoz eta, era berean, ideiak inpresioetatik.

- Ondorioa:

Laburbilduz, esan daiteke Humek *Giza ezagutzari buruzko ikerketa* obrako XII. Atalean hainbat eszeptizismo mota aztertzen dituela. *Gehiegizko* gisa identifikatzen dituen horiek benetako ezagutza eskuratzeko posibilitatea ukatzen dute; mantsoagoak diren eszeptizismoak, aldiz, lagungarriak izan daitezke egiaztat genituen uste okerrak zalantzan jarri eta, horrela, ebidente edo ziurrak diren printzipioetik abiatuta, ezagutza lortzeko.

Zientziei eta arteari buruzko diskurtsoa, Jean-Jacques Rousseau

- Sarrera

Jean-Jacques Rousseau pentsalari frantsesa Genevan (Suitza) jaio zen 1712an eta 1778an zendu zen. Ilustrazioko autorerik garrantzitsuenen artean aukitzen da.

Ilustrazioa, Argien Mende gisa ere ezagutzen dena, XVIII. mendean eman zen mugimendu filosofiko-kulturala izan zen. Arrazoiaren autonomia eta askatasuna hartzen dira printzipiotzat. XVII. mendetik XVIII. mendera aldaketa nabarmena ematen da mundu

ikuskerari dagokionez; beraz, baita filosofiaren alorrean ere. Batetik, arrazoia ulertzeko modua aldatzen da, egia bat ezagutzeko printzipio izatetik, eraldaketa soziala bultzatuko duen indar izatera pasatuz. Hortaz gain, filosofia egiteko forma bera ere bestelakoa da, orokorrean sistema filosofiko handiak alde batera utzi eta filosofia dibulgatiboagoa garatzen delarik. Honekin batera, zientzia aztertzetik bereziki giza- zein gizarte-zientzietarako hurbilpen bat ematen da (politika, gizarte...). Ilustrazio frantsesa, batez ere, garaiko absolutismoaren kontra garatu zen.

Rousseauren obra nagusien artean *Zientzia eta arteei buruzko diskurtsoa* (1750), *Emilio, edo hezkuntzaz* (1762) eta *Gizarte hitzarmena* (1762) aurki daitezke.

Rousseauk gizartearen orduko gehiegizko arrazoinalismoa kritikatzeko du. Haren ustetan, Ilustrazioaren progresoarekin gizakiak bere askatasun naturala galdu du. Rousseauentzat progresoa, beraz, ez da gizartean emandako aurrerapenen multzoa, gizakia jatorrizko egoerara itzultzea baizik. Aldiz, itzulera hau hipotesi gisa planteatzen du; hau da, egoera naturala irizpide normatibo bezala uler liteke. Horrela, galdutako askatasuna berreskuratzea da helburua.

- Garapena

Zientzia eta arteei buruzko diskurtsoa obraren lehenengo atalean, aurrerapen edo progreso bezala hartu izan den horrek atzean faltsukeria besterik ez duela azaltzen du Rousseauk, adeitasunez jantzitako faltsukeria. Gizarte molde uniforme batetik irteten ez den artaldea da. Dagoeneko ez dago zintzoa den laguntasunik, benetako afekturik ezta konfiantzarik ere; gorrotoa, beldurra, traizioa edota susmoak daude horien orde. Aldiz, atzeritar batek europear ohituretan arakatu nahi badu garaiko zientzien eta arteen garapena aztertzearen bitartez, Rousseauk salatutako ohituren aurkakoak direla ondorioztatuko luke. Zientziak nahiz arteak haien perfekzionamendurantz aurrera egitearekin batera, pertsonen arimak usteltzen joan direla adierazten du autoreak. "Nuestras almas se han corrompido a medida que nuestras ciencias y nuestras artes han avanzado a la perfección" (Rousseau, 1750, 45). Dena den, ustelkeria hau ez da bere garaian sortu den zerbait, antzinako gizarteetan ere ematen baitzen. Traizioak, erailketak... ustezko jakinduriaren eskutik joan izan dira. Rousseauren aburuz, egon dira, hala ere, herri horien ustelkeriatik urrun zeuden hainbat herri txiki, askotan despektiboki barbaro gisa ere izendatuak, beraien jatorrizko ohitura eta balioei eutsi izan diotenak.

Honekin batera, Socrates hartzen du bertutearen eredutzat. Socratesek, ustez poliseko jakintsuenak zirenekin hainbat elkarrizketa mantendu ondoren, zera ondorioztatu zuen: haien burua jakintsutzat zuten horiek ez zirela bera baino jakintsuagoak; aldiz, berak behintzat bazuela bere ezjakintasunaren berri eta besteek ez.

Ezjakintasunetik irten eta geure burua jakintsu gisa kontsideratzeko saiakerak luxu, disoluzio eta esklabutzaren zigorrak ekarri dizkigutela dio autoreak.

Testuaren bigarren zatira pasatuz, hasiera honekin heltzen dio Rousseauk atalari: "un dios enemigo del descanso de los hombres fue el inventor de las ciencias" (Rousseau, 1750, 55). Zientziak eta arteak geure bizioetatik sortu izan direla defendatzen du. Hontaz gain,

zientziak, haien helburuari dagokionez, huts edo alferrikakoak izateaz gainera, horiek sortzen dituzten efektuak direla-eta are arriskutsuagoak dira, esaterako, denboraren xahutzea. Idazkera eta arteen kasuan, luxua izango litzateke efektu gaitzetako bat. Honek berarekin ohituren disoluzioa dakar.

Autore frantsesak, segidan, hasierako garaietako sinpletasuna ekartzen du gogora, non gauzak bere forma naturalean aurkezten ziren.

Honekin batera, erosotasunak gehituz, arteak perfektionatuz eta luxua hedatuz doazen bitartean, benetako balioak eta bertute militarra indarra galtzen dihoaz. Bestalde, zientzien garapena are kaltegarriagoa da ezaugarri moralei dagokienez. Bide honetatik, indarrean dagoen hezkuntzak ikasleek ulertzen ez dituzten gauzak irakasten ditu, ez, ordea, helduak direnean nola jokatu behar duten.

Alabaina, Roussearentzat zientzien eta arteen garapenaren ondoriorik latzena ondorengo da: talentuen arteko bereizketaren eta bertuteen zitaltzearen eskutik sortzen den gizakien arteko desberdintasuna.

- Ondorioa

Nahiko agerian geratu da nola filosofo frantsesak erabiltzen duen estilo metaforiko nahiz ironiaz beterikoaren atzean Ilustrazioari kritika egiten dion, honen gehiegizko arrazionaltasuna zein itxurakeria mahai gaineratuz. Historiaren bilakaera progresu gisa ulertzetik urrun, Roussearentzat honek ohituren zein bertuteen deuseztapen bat suposatu du, garai ilustratuaren faltsutasuna erakutsiz.

Prolegomenoak, Inmanuel Kant

- Sarrera

Inmanuel Kant (1724-1804) filosofo alemaniarra izan zen. Filosofiaren historian ezinbesteko garrantzia izan du bere sistema filosofikoak. Kantekin arrazionalismoaren eta enpirismoaren arteko eztabaida gainditzen dela esan daiteke, baita dogmatismoaren zein eszeptizismoaren artekoa ere. Bere planteamendu filosofikoak aldaketa nabaria dakar: ontofiliatik epistemofiliarako saltoa ematen da.

Kanten lan nagusien artean, ondorengoak aurki ditzakegu: *Arrazoimen hutsaren kritika* (1781), *Prolegomenoak* (1783), *Ohituren metafisika* (1785) eta *Arrazoimen praktikoaren kritika* (1788).

Hain ezaguna den *Arrazoimen hutsaren kritika* obran metafisika berri bat proposatzen du, filosofia trszendentala. Izan ere, haren aburuz, zentzu klasikoan ez da posible metafisika egitea, fokua bereziki objektuan jarri ohi duelako eta ez subjektuan. Hori dela eta, metafisika

posible izango da subjektua ezagutzaren abiapuntu nahiz erdigunetzat hartzen bada. Bide horretatik, *Prolegomenoak* lanak aurretik aipaturiko obran jasotzen diren ideia nagusiak era argiago baten biltzen ditu.

Kanten ustetan, ezagutza oro esperientziatik hasten den arren, ezagutza guztia ez dator esperientziatik; hau da, ezagutza eskuratzeko beharrezkoak dira bai ezagutza fenomeniko edo sentsiblea bai adimena (eta honen kategoriak). Honela adierazten du pentsalari alemanak: “el entendimiento es incapaz de intuir”, “la sensibilidad es incapaz de pensar”.

- Garapena

Egilearen hitzaurrea eta *Prolegomenoak* I. ataletik V.era bitartean jorratuko ditut. Hitzaurrean, *Arrazoi hutsaren kritika* obrak ekar dezakeen iluntasuna dela-eta, autoreak liburu honetan jasotzen diren oinarritzko nozioak argitzen saiatzeko *Prolegomenoak* idazten dituela aditzera ematen du. Aurre-nozio hauen oinarria, hortaz, arrazoi hutsaren ahalmenean dago, honen hedadura zein mugen ikerketan, hain zuzen.

Kantek, ezer baino lehen, Metafisika posible al den planteatzen du. Haren aburuz, beste edozein zientzia etengabeko aurrerakuntzan murgildurik dagoen bitartean, Metafisikak ez du pauso bat aurrera eman bere sorreratik ordura arte. Honekin batera, David Humek metafisikari egindako kritika edo erasoa ekartzen du gogora. Humek kritikaren abiapuntutzat kausalitatea hartu zuen; hots, kausa-efektu erlazioa. Pentsalari britainiarraren ustetan, ez da posible horrelako loturarik bururatzea apriori. Arrazoi kausalitatearen kontzeptuarekin engainatua dagoela defendatu zuen; irudimenak, asoziazioaren bitartez, errepresentazio batzuk bildu eta hemendik ohitura edo derrigortasun subjektiboa derrigortasun objektibo batekin identifikatzen du. Hortaz, arrazoimenak ez du inongo ahalmenik lotura kausalik pentsatzeko.

Kantek ondorengoa dio: “*David Humeren* oharpena izan zen, (...), ni lokuluska dogmatikotik lehenengoz esnatu ninduen” (Kant, 1783, 38). Dena den, aditzera ematen du Humek arazoa ez zuela bere osotasunean aurkitu, arazoa horren zati batera soilik murriztu baitzuen. Horrela, pentsalari alemana ohartzen da kausa-efektu lotura ez dela adimenak gauzen arteko loturak apriori bururatzeko erabiltzen duen bakarra; areago, hori besterik ez dela Metafisika.

Ondoren, *Prolegomenoetan* biltzen diren nozio funtsezkoak jasotzen saiatuko naiz. Lehenik eta behin, ezagutza bat zientzia gisa izendatzeko gainontzeko zientzietatik bereiziko lukeen apartekotasun bat izan behar du. Ezagutza metafisiko baten iturriak ezin dira enpirikoak izan; beraz, ezagutza mota hau ez dator ez kanpo esperientziatik (fisika) ezta barne esperientziatik (psikologia) ere. Hori dela eta, ezagutza metafisikoa apriorizko ezagutza da, adimen zein arrazoi hutsetik datorrena. Aldiz, gauzak horrela, ezingo litzateke matematikatik bereizi. Horrenbestez, *ezagutza filosofiko hutsa* izendatu beharko litzaioke aurrekoari.

Segidan, judizio analitikoaren eta sintetikoaren arteko bereizketa egiten du Kantek. Batetik, edukin-argitzaile edo analitikoak ezagutzaren edukari ezer berririk gehitzen ez diotenak dira, hau da, ez dute predikatuan ezer esaten, subjektuaren kontzeptuan iada biltzen delako kontzeptu horri buruzko ezagutza -adibidez, “gorputz guztiak hedatuak dira”-. Bestetik,

judizio edukin-zabaltzaile edo sintetikoek handitu egiten duten norberaren ezagutza -esaterako, “gorputz batzuk astunak dira”-.

Ondoren, judizio analitikoaren printzipio komuna kontraesanezko proposizioa dela dio. Subjektuaren kontzeptuak ezin du predikatua ezeztatu kontraesanean erori gabe. Hortaz, proposizio analitiko guztiak apriorizkoak dira. Judizio sintetikoek dagokienez, apriorizkoak nahiz aposteriorizkoak izan daitezke. Era berean, sintetikoak bitan sailka daitezke: esperientziako judizioak eta judizio matematikoak. Bigarrenaren gainean kontrako iritziak egon izan diren arren, autorearen aburuz, “ $7+5=12$ ” edota “lerro zuzena bi punturen arteko laburrena da” proposizioak sintetikoak dira; izan ere, kontzeptu horietatik kanpora joan beharra dago, horien gainean ditugun intuizioak baliatuz.

Judizioak ikertzerakoan, lehenik, judizio analitiko apriorizkoek ez dute ematen ezagutza berririk; beraz, ezin dute zientzia aurreratzaile baten oinarriak eskaini. Bestalde, judizio sintetiko aposteriorizkoak ezagutza zabaltzen duten arren, ezin dute beharrezkotasuna zein orokortasuna eskaintzen; hori dela eta, hauek ezin dira benetako zientzia baten oinarria izan. Horrenbestez, Kantentzat judizio sintetiko apriorizkoak dira zientziaren judizioak, beharrezko eta unibertsal izateaz gain, aurreko ezagutza handitzen dute.

- Ondorioa

Kantek “posible al da Metafisika zientzia gisa?” galdera planteatzen du. Honen erantzunean arakatzeko aztertu beharrekoa arrazoi hutsa dela defendatzen du, hots, judizioen arteko harremanak, eta eremu hori jorratzen duena dialektika traszdendentala litzateke. Pentsalari alemanak metafisika zaharra deuseztatzen du, metafisika eredu berri bat jarriz mahai gainean, benetan epistemologia bat dena. Izan ere, Kanten aburuz, metafisika subjektuak ezagutzeko duen moduaren azterketaz arduratu behar den diziplina litzateke.

Bibliografia

Bacon, F. (1620). *Novum Organum*. Madril: Tecnos, 2011.

Descartes, R. (1637) *Metodoari buruzko diskurtsoa*. Bilbo: Klasikoak, 1997.

Hume, D. (1748). *Giza ezagutzari buruzko ikerketa*. Bilbo: Klasikoak, 1993.

Kant, I. (1783). *Prolegomenoak*. Bilbo: Klasikoak, 1995.

Rousseau, J. (1750). *Zientzia eta arteei buruzko diskurtsoa*, Alianza, 2012.